

Torshavnek politika soziala suspertu nahi du; sozialdemokratek beren politika berrikusi

Zentristak ere Gobernuan direla, motelago egingo da bide soberanista

Alderdi abertzaleek koalizioa zabaldu dute, eta gehiengoa eskuratu dute Legebiltzarrean

Edu Lopez de Luzuriaga | KOPENHAGE


Faroeetako gobernu berriak uhartearen subiranotasun prozesuari eutsiko dio, baina azken lau urteetan eramandako abiadura moteldu egingo du. Hau da iragan apirilaren 30ean egindako hauteskunde autonomikoaren ondorio nagusia.

Apirileko hauteskundeetan, aurreko koalizio gobernu osoa zuten hiru alderdiek (Alderdi Errepublikanoa, Herri Alderdia eta Alderdi Autonomista) gehiengoa galdu zuten. Oposizioko hiru alderdiek (Alderdi Unionista, Alderdi Sozialdemokrata eta Zentroko Alderdia) Gobernuak adina diputatu lortu zituzten eta Anfinn Kallsberg lehendakariak hiruko koalizioa ireki behar izan du gehiengoaren sostengua izateko.

Oposizioko hiru alderdiekin luze eta biziki negoziatu eta gero, lehendakariak erabaki du Zentroko Alderdiari koalizioa ateak irekitzea, alderdi honek gobernuari parlamentu-gehiengoa ziurtatzen dion aukia baitauka. Gobernuko alderdiek 17 diputatu dituzte Torshavneko legebiltzarrean, oposizio unionista eta sozialdemokratik 15.

«Gobernua osatzeko negoziaketak inoiz baino zailagoak izan dira», esan du Anfinn Kallsberg, baina azkenen lau alderdiek koalizio akordioa sinatu dute bi puntutan oinarrituta: subiranotasun prozesua moteldu eta politika soziala suspertu.

Gobernu berriak ez ditu Dani-



EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Faroe uharteetako Legebiltzarrean nagusi izaten jarraituko dute Gobernuko alderdiek.

markaren esku dauden eskumen esanguratsuenak eskuratu (justizia, defentsa eta kanpo arazoak, besteak beste), kompetentzia hauen hartzeak, Danimarkak Faroe Uharteei urtero ematen dien diru laguntzaren murrizketa ekarriko baiduke. Hauen ordez, gobernu faroetarra murrizpen ekonomiko ez dakarten beste eskumen batzuk hartzen saiatuko da (eliza, etorkinak, itsas ingurumena eta familia arazoak, besteak beste).

Burujabetza helburu

Subiranotasun prozesua moteldu arren, independentziaren aldeko Alderdi Errepublikano-

an pozez hartu dute gobernu berriaren osaketa. «Faroe Uhartearen burujabetza da gobernuan gauden lau alderdien azken helburua», esan du gobernu berriaren lehendakariorde eta Justizia sailburua den Hogni Hoydal buruzagi errepublikanoak, koalizio akordioa defendatuz.

Anfinn Kallsberg lehendakariaren Herri Alderdiak Gobernuko bederatzi sailetatik hiru izango ditu: lehendakariaren karguaz gain, Arrantza eta Industria Sailak. Alderdi Errepublikanoak Hogni Hoydal buruzagi lehendakariorde izaten jarraituko du, eta une berean Justizia kontseilari berria izan-

go da. Honetaz gain, errepublikanoek beste hiru sail izango dituzte beren ardurapean: ekonomia, hezkuntza-kultura eta gai sozialak. Alderdi Autonomistak Petrolio eta Ingurumen Saila zuzentzen jarraituko du, eta Osasun Saila Zentroko Alderdiaren ardurapean geldituko da.

Oposizioan beste lau urtez jarraitu behar izateak ez dirudi Alderdi Sozialdemokrataren gustukoa, eta dagoeneko Johannes Eidesgaard buruzagiak jakitera eman du alderdiak bere politika berrikusiko duela, are gehiago gobernu berriak politika soziala suspertuko duela iragarri eta gero.

BREITAINIA. Bi urte preso egin ondoren, behin-behineko kartzelaldia luzatzeko ziorik ez du ikusi jupeak

Plevingo leherkari lapurretan parte hartu izanaz akusaturiko independentista bat askatu dute

Agentziak | PARIS

ETAk eta ARB Bretainiako Armada Iraultzaileak 1999an Plevinen eginiko leherkari lapurretan nahastuta izatea leporatuta duela bi urte eta erdiz kartzelatan independentziaren aldeko militante bretoi bat askatu zuten atzo. Arnaud Vannier independentista 1999ko irailean atxilotu zuten eta igandean libre geratu zen epaileak behin-

behineko atxilotura luzatzeko arrazoirik ez zegoela iritzita. Vannier askatzearen kontra agertu zen fiskaltzak ez dio helegiterik jarri hura espetxetik ateratzeko ebazpenari.

Bretainiako Pen Ar Bed (Finistère) eskualdeko Karaez hiritik gertu den Plevin herrian 1999ko irailean zortzi tona pasatxo dinamita lapurtu zuen ETako talde batek, ustez ARBren laguntzarekin.

Vannier atxilotu zutenean, haren autoan bi detonagailu, 25 dinamita kartutxo eta ARBren eskuorriak aurkitu zituztela dio Frantziako Poliziak.

Beste zazpi oraindik preso

Vannier askatuta, zapi dira espetxean jarraitzen duten independentista bretoiak, CARB Bretainiako Errepresioaren aurkako Koordinadorearen arabera.

Poliziak Kevert (Ar Mor) herriko McDonald's hanburgeserian 2000. urteko apirilean izaniko leherketarekin lotuta egoitea leporatuta daude kartzelaturik zazpi independentiazaleok. Gertaera hartan 27 urteko langile bat hil zen hanburgeserian atean jarritako lehergailu batek eztanda egin zuenean. Poliziak ARBri leporatu zion lehergailua jarri izana. ARBk ukatu zuen, ordea, bonbarekin zerikusia izan zuela. Bretainiako hainbat talde nazionalistek Frantziako zerbitzu sekretuei egotzi zieten ekintza.

ASTEKO KRONIKA

EKAINAK 15, LARUNBATA

GALIZIA. Carlos Manuel Callon Torres Hizkuntzaren Normalizaziorako Mahaiko buru aukeratu zuten erakundeak egindako batzar berezian. Concha Costas ordezkatu zuen postuan.

EKAINAK 16, IGANDEA

ESKOZIA. Jack McConnell lehen ministro laboristak onartu zuen bere gobernuak deus ez zekiela 40 aholkulariko taldea osatzeko planaz. McConnell haserre agertu zen, ostiralean bidaia batetik itzuli arte ez baitzuen deusen berrikiriz izan.

EKAINAK 17, ASTELEHENA

BREITAINIA. Bost militanteren abokatuek Estatuaren kontrako kereila jarri zuten Parisen. Kartzelan dauden abertzaleei 1999 eta 2000ko atentatuak egotzi arren, epaileek ez diete eman ikerketa txostenaren kopiarik defentsari. Hori iaz onetsitako ustezko errugabetasun legegaren kontrako da.

EKAINAK 18, ASTEARTEA

HERRIALDE KATALANAK. Valentziako sindikatu, erakunde eta alderdi nazionalista eta ezkerrekoek kanpaina hasi zuten funtzionario guztiei postuan jarduteko valentziera jakitea eskatzeko.

EKAINAK 19, ASTEAZKENA

SARDINIA. Sardigna Nazione alderdiak Bustianu Cumpostu hautatu zuen berriz koordinatzaile nagusi karguan. Cumposturekin batera alderdiaren leloa —*Indipendentzia eta oparotasuna*— ere berretsi zuten Cagliariar.

EKAINAK 20, OSTEGUNA

FLANDES. Lambermonteko akordioak Belgikako herrien botere banaketa ez duela argitu guztiz salatu zuten. Hitzarmena iazko uztaillean onetsi zuten *erregioen* eskumenak zehaztu eta finantza-keta hobetzeko.

EKAINAK 21, OSTIRALA

KORSIKA. Anbizio politikorik ez duela esan zuen Charles Pieri militante abertzaleak maiatzaren 30ean aske irten ondoren emaniko lehen elkarrizketan. A Cuncolta Independentistako buru ohiari lau urteko zigorra ezarri zioten armak izatea leporatuta.